



**"Change
Environment"
Proiektua
Gauzatzeko
Irakaslearen Gida**



Co-funded by
the European Union



Gidaren sarrera

Gida hau irakasleei "Change Environment" proiektuaren curriculumak ezartzen laguntzeko diseinatuta dago. Curriculumak klima-aldaketaren eta migrazioaren arteko erlazio konplexua du ardatz. Curriculum-etapa bakoitzaren azalpenak, aholku praktikoak eta kanpoko baliabideak jasotzen ditu, irakasleek gaiak hobeto ulertzeko.

Gida honek proiektuaren curriculumaren edukia eta metodoak ulertzen lagunduko dizu. Era berean, arazoak sor ditzaketen erronkei aurre egiteko aholkuak aurkituko dituzu Adibidez, laguntza administratiboa nola lortu edo ikasleak nola inplikatu. Horretaz gain eskolako zuzendaritzarekin, ikaskideekin eta ikasleekin koordinatzeko moduari buruzko aholkuak aurkituko dituzu.

Change Environment proiekturako sarrera

Proiektu honen helburua 12-18 urteko ikasleak klima-aldaketaren premiazko gaian inplikatzeko eta hezteko da, bereziki populazio ezberdinei nola eragiten dien arreta jarriz. Hezkuntza-tresna eta estrategia berritzaileak erabiliz, ikasleek krisi global hori eta haren giza inpaktua hobeto ulertzea nahi du proiektuak.

Klima-inpaktuan hezteko

1

Erakutsi zure ikasleei nola aldaketa klimatikoak populazio ahulenei eragiten dien. Batez ere, azpiegitura desegokiak, baliabideetarako sarbide mugatua, ezegonkortasun ekonomikoa eta desplazamendu- eta migrazio-arrisku areagotua bezalako faktoreengatik egokitzeko gaitasun mugatua dutenei.

Ezagutza egitateetan oinarritutako informazioarekin eraikitzea

2

Ikasleei informazio argia, integrala eta frogetan oinarritua ematea larrialdi klimatikoari eta ingurumen-aldaketari buruz, eskura dituzten erronkak sakonago ezagutzea sustatuz.

Zientzia eta giza historiak orekatzea

3

Datu zientifikoak bizitza errealeko istorioekin eta klima-aldaketak eragindako komunitateen testigantzekin osatzea, pertzepzio orekatu bat bermatuz, aldi berean ezagutza faktikoa eta giza esperientzia begiz lotzen dituenak.

Konexio globalak sortzea

4

ikasleen eta ikertzaileen eta beste herrialde batzuetako ikasle errefuxiatu eta migratzaileen arteko elkarrekintzak erraztea. Lotura horien helburua elkar ulertzea eta hausnarketa sustatzea da klima-aldaketaren ondorioei aurre egiteko eta horiek arintzeko erantzukizun global partekatuari buruz.

Iraunkortasunaren aldeko ekintza inspiratzailea

5

ikasleak jasangarritasunaren aldeko defendatzaile bihurtzeko daitezkeen jokabide- eta bizimodu-aldaketak sustatuz, eguneroko praktikan gizarte inklusiboagoak eta ingurumenaz kontzienteagoak eraikitzen laguntzeko.



Curriculumak emandako istorio eta testigantza pertsonalak azpimarratzen ditu ikasleek haien esperientziak istorioekin lotzeko. Horrek, enpatia sustatzen du, proiektua iradokitzaileagoa eginez.

Proiektuaren osagai nagusiak

1

Hezkuntza-helburuak egitateetan oinarritutako informazioa ematea, ingurumen-aldaketak eragindako populazioen historia pertsonalekin osatua.

2

Ikuspegi pedagogikoa lau etapako curriculumak, ulermen zientifikoa adimen emozionalaren garapenarekin orekatzen duena.

3

Elkarlaneko ikaskuntza ikasleak, irakasleak, eskolako zuzendaritza eta kanpoko adituak ikaskuntza-ibilbide kolektibo batean inplikatzeko.



Co-funded by
the European Union

3



Change Environment metodologiari buruz



Change Environment metodologiari buruz

CHANGE metodologia hezkuntza-esparru integral bat da, ikasleek migrazioa, klima-aldaketa eta horrek komunitate ahuletan duen eragina ulertzeko eta premiazko gai globalei aurre egiteko konpromisoa har dezaten. Ikuspegi hori oinarritzko sei osagairen inguruan egituratzen da, hezkuntza-erperientzia orokorra indartzen duten elementu gehigarriekin batera:

1 EZAGUTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA

Curriculumak funtsezko informazioa ematen die ikasleei klima-aldaketari buruz eta horrek pertsonengan dituen ondorioei buruz. Curriculumak baliabide eskuragarriak eskaintzen ditu, bideoak eta kasu-azterketak barne, ikasleek eskura dituzten gaien ulermen sendoa gara dezaten. Autohezkuntzaren ikuspegi horrek aukera ematen die ikasleei beren ikaskuntzaz arduratzeko, eta klimarekin lotutako erronkei buruzko kontzientzia handiagoa sustatzen du.

2 PENTSAMENDU KRITIKOA

Ikasleak pentsamendu kritikoa, arazoak konpontzea eta planifikatzeko eta gauzatzeko jarduerak garatzera animatzen dira, ezinbestekoak baitira beren komunitateetan irtenbide eraginkorrak ezartzeko.

Esperientzia horri esker, ikasleek beren ezagutzak ekintzara itzultzen dituzte, sentibilizazioa eta pertzepzioa aldatzen lagunduko duten ekimen esanguratsuetan parte hartzeko prestatuz.

Change Environment metodologiari buruz

3 BESTEEKIKO KONPROMEZUA

Curriculumak lankidetzaren eta elkarrizketaren garrantzia sustatzen du. Ikasleak beren ikaskideekin, hezitzaileekin eta komunitateko kideekin harremanetan jartzera animatzen dira, klima-aldaketari eta haren eraginei buruzko eztabaidak erraztuz.

Elkarlanaren ikuspegi horrek komunitate-sentimendua eta bana-banako erantzukizuna sustatzen ditu, eta ikasleak klima-aldaketak planteatzen dituen erronkei aurre egiteko elkarrekin lan egitera bultzatzen ditu.

6 HERRITARTASUN AKTIBOA

Proiektuak gauzatzean eta bertako komunitateekin harremanetan jartzean, ikasleak motibatuta daude, ez bakarrik ekiteko, baita ikaskideak, gurasoak eta komunitateko kideak inplikatzeko ere.

Curriculumaren alde horrek herritartasun aktiboaren eta konpromisoaren kultura sustatzen du.

4 AUTOHEZKUNTZA

Curriculumak autoorientatutako ikaskuntza sustatzen du, ikasleei eta irakasleei hainbat multimedia-baliabide eskainiz.

Autohezkuntzaren alderdi horrek bermatzen du ikasle guztiek klima-aldaketari buruzko gaiak beren erritmoan erabil ditzaketela, beren hezkuntzaren gaineko jabetza eta erantzukizuna sustatuz.

5 ENPATIARAKO TOPAKETAK

Curriculumaren hirugarren etapak beste herrialde eta jatorri batzuetako ikasleekin eta klima-aldaketaren inpaktuak bizi izan dituzten gazte errefuxiatuekin elkar-trukeak proposatzen ditu. Ekintza pertsonal hauek enpatia lantzeko eta klima arazoaren alde pertsonala sakonago ulertzeko diseinatuta daude. Kaltetuen istorioak entzunda, ikasleek emozionalki konektatu dezakete kaltetutako pertsonekin, eta enpatia eta erantzukizun sentimendua garatu. Beste herrialde batzuetako ikaskideekin trukaketa birtualak egitea, proiektuaren barruan ikasteko esperientzia aberasten du.